

GIDA ESPRESA



Trenbidea gurutzatzea

**Trenbide-inguruneetako segurtasunari
buruzko GAZTEENTZAKO gida**

Espainiako trenbide- sareari buruzko datu interesgarriak



Trenbide-sarearen luzera: 15.301 km



Tren-geltokien kop.: 1.498



Urtean zirkulatzen duten trenen kop.: 2.206.905



Bidaiariak: 487 milioi



Trenbide-pasaguneak: 3.144

Iturria: Trenbidearen Beharokia. 2017ko Iraila.

Trenei buruzko datu interesgarriak

Abiadura handiko tren batzuek 322 tona inguru pisatzen dute; hau da, 43 elefante adina.

160 km/h-ko abiaduran doan tren batek 1.000 metro ere behar ditu erabat gelditzeko; hau da, 10 futbol-zelai adinako distantzia.

Tren batzuek 8.800 kW-eko potentzia dute; hau da, 120 automobileren adinakoa.

Baimendu gabeko trenbide- inguruneak eta bandalismoa

Legeak zigortu egiten du baimendu gabeko trenbide-inguruneetan sartzea. Jendeak ezin du sartu trenbidean; hortaz, hura baimendu gabeko toki batetik gurutzatzea oso arriskutsua eta legez kanpokoa da, baita zigorgarria ere.

Arazoi hauengatik ibili ohi da jendea trenbide-inguruneetan:

- ▶ Bidezidor bat hartzea.
- ▶ Txartela ordaindu nahi ez izatea.
- ▶ Ekintza bandalikoak egitea (graffitiak, pintadak, lapurreta, etab.).
- ▶ Argazkiak ateratzea.



**ISUNAK
(gehienez)
7.500 €**

Ekintza horiek ondorio larriak izan ditzakete; esaterako, sartzen direnak hiltzea.

114 hildako
Espainian, baimendu
gabeko puntuetan
gertatutako
istripuetan
(2010-2017)



Nondik gurutzatuko du?

- ▶ Tren-geltokietan eta haien inguruko tokietan, **gaineko eta azpiko pasabideak eta trenbide-pasaguneak** daude trenbidea seguru zeharkatzeko.
- ▶ Beste pasabiderik ez badago eta trenbidearen gainean **nasen arteko gurutzagune bat** badago, **gelditu, begiratu bi aldeetara, entzun arretaz eta gurutzatu seguru**a denean.
- ▶ Trenbide-pasaguneetan, egin kasu seinale fisikoei, argi-seinaleei eta seinale akustikoei.

Trenbide-inguruneetan seguru egoteko gakoak

- ▶ Haien abiadura eta pisua direla eta, **trenak** sortzen dituzten aire-zurrunbiloak hain dira indartsuak, ezen trenaren azpira eraman eta xurga baitzaitzakete. **Ez hurbildu inoiz trenbidera edo nasaren ertzera trena erabat geldituta egon arte.**

Nasan, koka zaitez lerro horiaren atzean.



- ▶ Tren-geltokietan, egoki jokatu eta ez jarri arriskuan zeure burua, ezta besteak ere.
- ▶ Tren-geltokietan, **adi bozgorailuetako mezuei eta ikusizkoei, baita langileen argibideei ere.**
- ▶ Tren-geltokietan eta haien inguruko tokietan, ez egin ez ikusi arriskuaz ohartarazteko seinaleei.
- ▶ Trenbidean bazaude, **lesio larriak izateko arriskua duzu, edo hiltzekoa.** Trenen trafikoagatik eta elektrizitateagatik da arriskutsua.

Ez da zertan katenaria eskuaz ukitu elektrokutatzeko.



ukitu inoiz katenaria.

Katenaria trenbidearen gainean dagoen linea elektrikoa da; ez da itzaltzen, eta potentzia hilgarria du.

Trenbide- inguruneetan seguru egoteko gakoak

Alkoholak eta
drogek istripuak
eragin ditzakete,
hildako eta
guzti.

- ▶ **Ez jarri inoiz ezer trenbidean**, istripu larria eragin baitezakete, biktima eta guzti.
- ▶ Ondo pasatzean eta parranda egitean, ez ahaztu segurtasuna. Trenbideen ingurua ez da horretarako tokirik egokiena; arriskuak daude, eta, askotan, oso ondorio txarrak dituzte.



- ▶ **Alkoholak, medikamentu batzuek eta beste substantzia batzuek arriskuaren pertzepzioa aldatzen digute, eta erantzuteko gaitasuna murrizten.**

- ▶ Nasaren ertzean edo trenbidetik gertu **autoargazkiak ateratzeak, aurikularrak edo entzungailuak erabiltzeak, sare sozialei begira egoteak eta abarrek oso ondorio larriak izan ditzakete.**




- ▶ Arriskutsua da trenbidea gurutzatzea. **Erne egon behar duzu beti; ez galdu arreta.**

Trenak bidaiatzeko,
parranda egiteko,
ikasteko, lan egiteko...
askatasuna ematen
dizu; **aprobetxatu
askatasun
hori, baina
segurtasunez.**



GELDITU, BEGIRATU, ENTZUN, BIZI!



Trenbidea gurutzatzea

Lantalde teknikoa:



Secretaría Técnica:
FUNDACIÓN DE LOS
FERROCARRILES
ESPAÑOLES



AGENCIA ESTATAL
DE SEGURIDAD FERROVIARIA